

## TOKI ADMINISTRAZIOA

3

## ADMINISTRACIÓN LOCAL

## TOLOSAKO UDALA

*Iragarkia*

Udalbatzak, 2024ko martxoaren 27an egindako ohiko Osoko Bilkuran, hasierako onespena eman zion Tolosako Hezkuntza Kontseilua arautzeko Erregelamenduari.

Toki Araubidearen Oinarriak Arautzen dituen 7/1985 Legearen 49.b artikulua xedatzen duena betez, iragarkia Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratu zen, baita Udalaren webgunean eta udaletxeko iragarki-taulan ere, eta informazio publikorako ikusgai egon da 30 egun baliodunez. Ez da batere erreklamaziorik izan.

Hortaz, behin betiko onartutaz jo da Tolosako Hezkuntza Kontseilua arautzeko Erregelamendua.

Akordio honen aurka ezin da errekurtsorik aurkeztu administrazio-bidean.

Hala ere, administrazioarekiko auzi-errekurtsioa jarri ahal izango da Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiaren Administrazioarekiko Auzietako Salaren aurrean, iragarkia argitaratzen den hurrengo egunetik hasi eta bi hilabeteko epean.

Tolosa, 2024ko uztailaren 1a.—Angel Martinez de Rituerto Arregui, alkatea. (4921)

TOLOSAKO HEZKUNTZA KONTSEILUAREN  
ERREGELAMENDUA

Tolosako Udalak jakin badaki hezkuntza erantzukizun parte-katua dela, eta, alde horretatik, udal-politikaren eginkizunik garrantzitsuenetako bat. Udalaren nahia da hezkuntza-arloan diharduten eragileen arteko lankidetzeta sustatzea: ikastetxeen eta gizarte-ingurunearen arteko elkarreragina areagotzea, ikasleentzako baliabide komunitarioak antolatzea, eta hezkuntza formala eta ez-formala gehiago uztartzea. Helburu horrekin, eta bat etorrita 17/2023 Legeak, abenduaren 21ekoak, EAEko Hezkuntzari buruzkoak, III. Tituluan arautzen duenarekin, Tolosako Udalak erabaki du Tolosako Hezkuntza Kontseilua sortzea.

Tolosako Hezkuntza Kontseilua eratzeak ahalbidetuko du herritarrek eta herri-eragileek parte-hartze handiagoa izatea hezkuntzaren arloan, eta, horrenbestez, botere publikoek modu egokiagoan erantzun ahal izango diete Tolosan hezkuntza-arloan dauden beharrei.

## I. KAPITULUA

## KONTSEILUAREN IZAERA ETA JARDUN-EREMUA

*1. artikulua. Izaera.*

Tolosako Hezkuntza Kontseilua kide anitzeko organo aholkumaila da, Tolosako Udalarari atxikia Herritarren Lan Esparruko Informazio Batzorde Iraunkorraren bitartez. Kontseilua harreman-organoa da, non elkartuko diren Tolosan hezkuntzaren arloan ari diren eragileak: ikastetxeak, familiak, bestelako elkarteak, eta erakunde publikoak nahiz pribatuak.

## AYUNTAMIENTO DE TOLOSA

*Anuncio*

El Pleno del Ayuntamiento, en sesión ordinaria celebrada el 27 de marzo de 2024, aprobó inicialmente el Reglamento regulador del Consejo Educativo de Tolosa.

En cumplimiento de lo dispuesto en el artículo 49.b de la Ley 7/1985, Reguladora de las Bases del Régimen Local, el anuncio fue publicado en el BOLETÍN OFICIAL de Gipuzkoa, en la página web del Ayuntamiento y en el tablón de anuncios del Ayuntamiento y expuesto al público durante 30 días hábiles. No ha habido ninguna reclamación.

En consecuencia, se da por aprobado definitivamente el Reglamento regulador del Consejo Educativo de Tolosa.

Contra el presente acuerdo no cabe recurso en vía administrativa.

No obstante, podrá interponerse recurso contencioso-administrativo ante la Sala de lo Contencioso-Administrativo del Tribunal Superior de Justicia del País Vasco en el plazo de dos meses contar desde el día siguiente al de la publicación del anuncio.

Tolosa, a 1 de julio de 2024.—El alcalde, Angel Martinez de Rituerto Arregui. (4921)

REGLAMENTO REGULADOR DEL CONSEJO EDUCATIVO  
DE TOLOSA

El Ayuntamiento de Tolosa es consciente de que la educación es una responsabilidad compartida y, en ese sentido, una de las funciones más importantes de la política municipal. El Ayuntamiento pretende fomentar la colaboración entre agentes que intervienen en el ámbito educativo, incrementando la interacción entre los centros educativos y el entorno social, organizando los recursos comunitarios para el alumnado, y uniendo más la educación formal y no formal. Con este fin, y de acuerdo con lo establecido en el Título III de la Ley 17/2023, de 21 de diciembre, de Educación de la Comunidad Autónoma del País Vasco, el Ayuntamiento de Tolosa ha decidido crear el Consejo Educativo de Tolosa.

La constitución del Consejo Educativo de Tolosa permitirá una mayor participación de la ciudadanía y de los/las agentes en el ámbito educativo, por lo que los poderes públicos podrán dar una respuesta más adecuada a las necesidades educativas de Tolosa.

## CAPÍTULO I

## NATURALEZA Y ÁMBITO DE ACTIVIDAD DEL CONSEJO

*Artículo 1. Naturaleza.*

El Consejo Educativo de Tolosa es un órgano colegiado de carácter consultivo, adscrito al Ayuntamiento de Tolosa a través de la Comisión Informativa Permanente del Área de Trabajo de Ciudadanía. El Consejo es un órgano de relación en el que se darán cita los/las agentes educativos de Tolosa: centros educativos, familias, otras asociaciones, y entidades públicas y privadas.

Kontseiluaren esku-hartzea adieraziko da bere eginkizuntzat hartutako gaien azterketan. Gai horiei buruz egindako proposamenak edo alternatibak ez dira Udalarentzat lotesleak izango. Kontseiluak Udalari egindako proposamenak edo alternatibak ez badira kontuan hartuak behin betiko onespenean, horren zergatiak adierazita erantzungo zaio Kontseiluari. Era berean, Udalako beharrezko diren mekanismoak eta bideak ezarriko ditu planteatutako proposamenek eragina izan dezaten udal-jardueran.

Funtzionamendu egokia bermatzeko, Euskara eta Hezkuntza Sailaren laguntza teknikoak izango du Kontseiluak.

## 2. artikulua. Helburua.

Tolosako Hezkuntza Kontseiluaren helburua da eragileen parte-hartzea areagotzea, eta hezkuntza-arloan lankidetzaren sustatzea. Elkarlan horren bitartez, lortu nahi da ikastetxeen eta gizarte-ingurunearen arteko elkarreragina areagotzea, ikasleentzako baliabide komunitarioak antolatzea herrian, eta hezkuntza formala eta ez-formala gehiago uztartzea.

## 3. artikulua. Eskumenak.

Kontuan hartuta zer xedatzen duten 17/2023 Legeak, abenduaren 21ekoak, EAEko Hezkuntzari buruzkoak, eta 13/1988 Legeak, urriaren 28koak, Euskadiko Eskola-Kontseiluei buruzkoak, gai hauei buruzko iritzia ematea dagokio Tolosako Hezkuntza Kontseiluari, hezkuntza-administrazioak eta Tolosako Udalak derrigorez kontsulta eginda:

a) Hezkuntza-premiak identifikatzea, eskaintza banatzea eta ikasleak eskolatzeko irizpideak zehaztea, hiri-plangintzatik eratorritakoak barne direla.

b) Berariazko hezkuntza-laguntzaren premia duten ikasleentzako eskolatzeko egokia eta orekatua bermatzeko beharrezko diren jarduketak eta neurriak, arrazoi sozioekonomikoek edo bestelakoek sorturiko ikasle-segregazioa saihesteko.

c) Ikastetxeen funtzionamenduari eragiten dioten udal-jarduketak.

d) Udalerria esparru duten hezkuntza-patronatu, -partzueren eta -erakundeak eratzea.

e) Gizarteak hezkuntza-komunitateari egiten dizkion preskakuntza-ekintzak koordinatzea eta txertatzea.

f) Hezkuntza-komunitatean emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna bultzatzeko jarduerak, indarkeria matxistaren eta eskola-jazarpenaren kontrakoak, eta arraza-, sexu- edo erlijio-bereizkeriagatik eta 1/2023 Legegintzako Dekretuaren 3.1 artikuluan ezarritako beste diskriminazio-faktore batzuen gerta litekeen edozein bereizkeriaren aurkakoak.

g) Tolosako Udaleko Berdintasun Saila garatzen ari den Hezkidetzaren Proiektuaren barruan antolatzen diren jardueren eta programen informazioa, komunikazioa, koordinazioa eta jarraipena.

h) Bizikidetzaren positiboa sustatzeko jarduerak, eskola askotariko, libre, seguru eta indarkeriarik gabekoa xede dutenak.

i) Hezkuntza-komunitatean euskararen normalizazioarekin eta erabilerekin lotutako jarduerak.

## II. KAPITULUA

### KONTSEILUAREN OSAERA ETA EGINKIZUNAK

## 4. artikulua. Batzarraren osaera.

Honako hauek izango dira Tolosako Hezkuntza Kontseiluaren batzarreko kide:

a) Lehendakaria: Hezkuntza-arloko zinegotzi delegatua, eta haren ordezkaria.

b) Udalbatzaren ordezkariak duen talde politiko bakoitzeko ordezkari bana, eta haien ordezkariak.

La intervención del Consejo se expresará en el examen de los asuntos que le sean atribuidos. Las propuestas o alternativas que se formulen sobre estas materias no serán vinculantes para el Ayuntamiento. Si las propuestas o alternativas formuladas por el Consejo al Ayuntamiento no hubieran sido tenidas en cuenta en la aprobación definitiva, se responderá al Consejo con indicación de las causas que la motivan. Asimismo, el Ayuntamiento establecerá los mecanismos y cauces necesarios para que las propuestas planteadas afecten a la actividad municipal.

A fin de garantizar su correcto funcionamiento, el Consejo contará con la asistencia técnica del Área de Euskera y Educación.

## Artículo 2. Objetivo.

El Consejo Educativo de Tolosa tiene como objetivo aumentar la participación de los/las agentes y fomentar la cooperación en el ámbito educativo. Mediante esta colaboración, se pretende aumentar la interacción entre los centros educativos y el entorno social, organizar los recursos comunitarios para el alumnado en el municipio y una mayor integración de la educación formal y no formal.

## Artículo 3. Competencias.

Teniendo en cuenta lo dispuesto en la Ley 17/2023, de 21 de diciembre, de Educación de la Comunidad Autónoma del País Vasco, y en la Ley 13/1988, de 28 de octubre, de Consejos Escolares de Euskadi, corresponde al Consejo Educativo de Tolosa, previa consulta obligatoria con la Administración educativa y el Ayuntamiento de Tolosa, pronunciarse sobre los siguientes temas:

a) Identificación de las necesidades educativas, distribución de la oferta y determinación de los criterios de escolarización del alumnado, incluidos los derivados de la planificación urbana.

b) Actuaciones y medidas necesarias para contribuir a garantizar una idónea y equilibrada escolarización del alumnado con necesidades específicas de apoyo educativo, a fin de evitar la segregación del alumnado por razones socioeconómicas o de otra naturaleza.

c) Actuaciones municipales que afecten al funcionamiento de los centros escolares.

d) Constitución de patronatos, consorcios e instituciones educativas cuyo ámbito sea el municipio.

e) Coordinar e integrar las acciones formativas que la sociedad realice a la comunidad educativa.

f) Actuaciones en la comunidad educativa dirigidas a promover la igualdad de mujeres y hombres, contra la violencia machista y el acoso escolar, y contra cualquier discriminación por razón de discriminación racial, sexual o religiosa y otros factores de discriminación establecidos en el artículo 3.1 del Decreto Legislativo 1/2023.

g) Información, comunicación, coordinación y seguimiento de las actividades y programas que se organicen dentro del Proyecto de Coeducación que desarrolla el Área de Igualdad del Ayuntamiento de Tolosa.

h) Actividades de promoción de la convivencia positiva dirigidas a una escuela diversa, libre, segura y no violenta.

i) Actividades relacionadas con la normalización y uso del euskera en la comunidad educativa.

## CAPÍTULO II

### COMPOSICIÓN Y FUNCIONES DEL CONSEJO

## Artículo 4. Composición del Pleno.

Serán miembros del Consejo Educativo de Tolosa:

a) Presidencia: El/La concejal/a delegado/a de Educación, y su suplente.

b) Un/una representante de cada grupo político con representación en la Corporación, y sus suplentes.

c) Unibertsitatez kanpoko Tolosako ikastetxeetako zuzendariak, eta haien ordezkioak.

d) Unibertsitatez kanpoko Tolosako ikastetxe bakoitzeko familia-elkarteen ordezkari bana, eta haien ordezkioak.

e) Hezkuntza ez-formalarekin lotutako taldeetako eta elkarteetako ordezkariak, eta haien ordezkioak.

f) Idazkaria: Euskara eta Hezkuntza Saileko zerbitzuburua, eta haren ordezkioa, ahotsarekin baina botorik gabe.

Kontseiluaren zereginak hobeto betetze aldera, batzarretara joan ahal izango dira udal-teknikariak, ahotsarekin baina botorik gabe.

Era berean, bileratara gonbidatu ahal izango dira beste elkarte edo talde batzuetako ordezkariak, baita norbanakoak ere, aztergai diren gaiarekin lotura dutelako edo haien ekarpena interesgarria izan daitekeelako. Ahotsa izango dute, baina ez botorik.

Ez dira inola ere kide gisa onartuko sexuaren ziozko bereizkeria eragiten duten elkarte edo erakundeak, eta emakumeek gizonarekin berdintasunean parte hartzea onartzen ez duten edo oztopatzen duten jarduerak antolatzen dituzten elkarteak. Era berean, ezingo dute parte hartu sexuaren ziozko bereizkeria dela eta administrazio-zehapena edo zigor penala jaso duten pertsona fisikoek edo juridikoek, dena delako zehapenak edo zigorrak dirauen denboran.

#### 5. artikulua. Kontseiluko kideen izendapena.

Era honetan izendatuko dira Kontseiluko kideak eta haien ordezkioak:

a) Udal-talde politikoetako ordezkariak Udalbatzak izendatuko ditu, talde bakoitzak proposaturik, agintaldi bakoitzaren hasieran.

b) Ikastetxeetako, familietako eta gainerako taldeetako ordezkariak alkatearen edo zinegotzi delegatuaren ebazpen bidez izendatuko dira, dagokion elkarteak egindako proposamenari jarraituz.

Kontuan hartuta zer dioen 1/2023 Legegintzako Dekretuak, martxoaren 16koak, emakumeen eta gizonen berdintasunerako eta emakumeen aurkako indarkeria matxistarik gabe bizitzeko Legearen testu bategina onartzen duenak, neurri egokiak hartuko dira Kontseiluan emakumeek eta gizonen presentzia orekatua izan dezaten (sexu biek gutxienez % 40ko ordezkariak). Presentzia orekatu hori bete dadin, Udalak sustatuko du elkarteetako edota erakundeetako zuzendaritza-organoetan presentzia orekatua izatea, besteak beste, dirulaguntzen oinarrietan neurriak sartuz, emakumeen presentzia txikia duten zuzendaritza-organoetan presentzia hori handitzea ahalbidetzeko.

Ordezkariek entitate bakar baten izenean hartuko dute parte, eta pertsona batek ezingo du, inolaz ere, entitate bat baino gehiago ordezkatu.

Aurreko paragrafoetan xedatutakoari aurka egin gabe, Kontseiluko kideek kontseilukide izateari utziko diote ondorengo kasu hauetan:

- Norbere borondatez, betiere idatziz adierazten bada.
- Erregelamendu honetan adierazitako funtzioak behin eta berriro ez betetzeak eragindako enkaitzeagatik edo kargugabezteagatik.
- Ordezkatzen duen elkarte, taldea edo kolektiboa desagertzen bada.
- Elkartearen estatutuetan izendatu izanaren funtsezko aldatetarik gertatzen bada.
- Lehendakartzaren kasuan, delegazio aldatu edo uzteagatik.
- Ordezkatzen duen elkarte uzteagatik.

c) Directores/as de los centros docentes no universitarios de Tolosa, y sus suplentes.

d) Un/una representante de cada una de las asociaciones de familias de cada centro educativo no universitario de Tolosa, y sus suplentes.

e) Representantes de los grupos y asociaciones relacionadas con la educación no formal, y sus suplentes.

f) Secretaría: El jefe o la jefa del Área de Euskera y Educación, y su suplente, con voz y sin voto.

Para el mejor ejercicio de las funciones del Consejo, los/as técnicos/as municipales podrán asistir a las reuniones, con voz pero sin voto.

Asimismo, se podrá invitar a las reuniones a representantes de otras asociaciones o colectivos, así como a personas individuales, por su relación con el tema objeto de estudio, o por el interés que su aportación pueda tener. Tendrán voz, pero no voto.

En ningún caso se admitirán como miembros a asociaciones o entidades que discriminan por razón de sexo, y a asociaciones que organicen actividades que no admitan o dificulten la participación de las mujeres en igualdad de condiciones con los hombres. Tampoco podrán participar las personas físicas o jurídicas sancionadas administrativa o penalmente por incurrir en discriminación por razón de sexo durante el tiempo que dure la sanción o condena.

#### Artículo 5. Nominación de los/as miembros del Consejo.

Los/as miembros del Consejo y sus suplentes serán nombrados de la siguiente forma:

a) Los/as representantes de los grupos políticos municipales serán nombrados/as por el Pleno, a propuesta de cada grupo, al inicio de cada mandato.

b) Los/as representantes de los centros, familias y demás grupos serán nombrados/as por resolución de Alcaldía o Concejalía Delegada, a propuesta de la asociación correspondiente.

Teniendo en cuenta lo dispuesto en el Decreto Legislativo 1/2023, de 16 de marzo, por el que se aprueba el texto refundido de la Ley para la Igualdad de Mujeres y Hombres y para la Igualdad de Mujeres y Mujeres y Contra la Violencia Machista, se adoptarán las medidas oportunas para garantizar una presencia equilibrada de mujeres y hombres en el Consejo, con una representación mínima del 40 % de ambos sexos. Para que esta presencia equilibrada se cumpla, el Ayuntamiento promoverá una presencia equilibrada en los órganos de dirección de las asociaciones y/o entidades, entre otros, mediante la introducción de medidas en las bases de las subvenciones, que permitan incrementar esa presencia de las mujeres en los órganos directivos con escasa presencia.

Los/as representantes participarán en nombre de una sola entidad, sin que en ningún caso puedan representar a más de una entidad.

Sin perjuicio de lo dispuesto en los apartados anteriores, los/as miembros del Consejo perderán su condición de vocales en los siguientes supuestos:

- Voluntariamente, siempre que se manifieste por escrito.
- Por remoción o cese derivado del incumplimiento reiterado de las funciones señaladas en el presente Reglamento.
- Por desaparición de la asociación, grupo o colectivo al que representa.
- Por modificación sustancial del nombramiento en los estatutos de la asociación.
- En el caso de la Presidencia, por cambio o cese de delegación.
- Por cese de la asociación a la que representa.

– Heriotzagatik.

**6. artikulua.** *Kontseilukideen eskubideak eta betebeharrak.*

Honako eskubide hauek dauzkate Tolosako Hezkuntza Kontseiluko kideek:

- Kontseiluaren bileretako eztabaidetan parte hartzea.
- Gai-zerrendan jasota ez dagoen gairen bat proposatzea. Horrelakoetan, Kontseiluak gehiengo soiluz hartuko du gaia eztabaidatzeko erabakia.
- Hezkuntzari buruzko proposamenak planteatzea.
- Kontseiluak hartutako erabakiak betetzeko garatzen diren ekintzei buruzko informazioa jasotzea.
- Kontseiluaren aktak eta dokumentazio guztia eskuratu ahal izatea.
- Erregelamendu honek nahiz indarrean dagoen legediak ezar dakizkiekeen beste eskubide guztiak.

Honako betebeharrak hauek dauzkate Tolosako Hezkuntza Kontseiluko kideek:

- Kontseiluaren bileretan eta kide diren lantaldeen bilereetan parte hartzea.
- Kontseiluak hartutako erabakiak betetzeko sustatzen diren ekintzetan laguntza ematea.
- Erregelamendu honetan xedatutakoa errespetatu eta betetzea.
- Elkarte, talde edo kolektiboen kasuan, Udalarri jakinaraztea beren estatutuak aldatuz gero, aldaketa horiek izendapenetan eraginik baduten aztertzea.
- Entitatearen ordezkaria edo helbide soziala aldatuz gero, horren berri jakinaraztea.
- Erregelamendu honek eta indarrean dagoen legediak ezar dakizkiekeen beste betebeharrak guztiak.

**7. artikulua.** *Lehendakariaren eginkizunak.*

Honako zeregin hauek izango ditu Kontseiluko lehendakariak:

- Kontseiluaren ordezkari izatea.
- Gai-zerrenda onartzea.
- Bileran buru egitea eta bileren garapena moderatzea.
- Elkarteak, taldeak edo norbanakoak gonbidatzea, Kontseiluak emandako iritzia erabera.
- Kontseiluaren ekimenak eta proposamenak helaraztea Herritarren Lan Esparruko Informazio Batzorde Iraunkorri edo, hala badagokio, Udaltzari.
- Kontseiluaren akteak eta hartutako erabakien ziurtagirietan oniritzia ematea.
- Lehendakari izateagatik dagokion beste edozein eginkizun betetzea.

**8. artikulua.** *Idazkariaren eginkizunak.*

Honako zeregin hauek izango ditu Kontseiluko idazkariak:

- Lehendakariarekin batera, gai-zerrenda prestatzea.
- Bilkurarako deialdia eta gai-zerrenda bidaltzea.
- Kontseiluaren bilkuretako akta egitea, eta Kontseiluko kideen esku jartzea.
- Kontseiluak hartutako erabakiak bideratzea.
- Kontseilukideen alta- eta baja-eskaerak jasotzea eta tramitatzea, baita dagokion erregistroa kudeatzea ere.
- Kontseiluko kideen proposamenak jasotzea, eta, hala badagokio, horien berri ematea.

– Por fallecimiento.

**Artículo 6.** *Derechos y deberes de los/as miembros del Consejo.*

Los/as miembros del Consejo Educativo de Tolosa tienen los siguientes derechos:

- Participar en los debates de las reuniones del Consejo.
- Proponer un asunto no incluido en el orden del día. En estos casos, el Consejo decidirá deliberar por mayoría simple.
- Plantear propuestas sobre educación.
- Recibir información sobre las acciones que se desarrollan en ejecución de los acuerdos adoptados por el Consejo.
- Tener acceso a las actas y a toda la documentación del Consejo.
- Cualesquiera otros derechos que le sean de aplicación el presente Reglamento o la legislación vigente.

Son obligaciones de los miembros del Consejo Educativo de Tolosa:

- Participar en las reuniones del Consejo y de los grupos de trabajo donde sean miembros.
- Colaborar en las acciones que se promuevan para la ejecución de los acuerdos adoptados por el Consejo.
- Respetar y cumplir lo dispuesto en el presente Reglamento.
- En el caso de asociaciones, grupos o colectivos, comunicar al Ayuntamiento la modificación de sus Estatutos, con el fin de estudiar su incidencia en los nombramientos.
- Comunicar cualquier cambio de representante o domicilio social de la entidad.
- Cuanto otras obligaciones le sean de aplicación el presente Reglamento y la legislación vigente.

**Artículo 7.** *Funciones del/la presidente/a.*

Corresponde a la Presidencia del Consejo:

- Representar al Consejo.
- Aprobar el orden del día.
- Presidir la reunión y moderar el desarrollo de las mismas.
- Invitar a asociaciones, grupos o particulares, según criterio del Consejo.
- Elevar las iniciativas y propuestas del Consejo a la Comisión Informativa Permanente del Ámbito de Trabajo de Ciudadanía o, en su caso, al Pleno.
- Visar las actas del Consejo y las certificaciones de los acuerdos adoptados.
- Ejercer cuantas otras funciones sean inherentes a su condición de presidente/a.

**Artículo 8.** *Funciones del/la secretario/a.*

Corresponde a la Secretaría del Consejo:

- Preparar, junto con el/la presidente/a, el orden del día.
- Remitir la convocatoria y el orden del día de la sesión.
- Levantar acta de las sesiones del Consejo, y ponerla a disposición de los/as miembros del mismo.
- Canalizar los acuerdos adoptados por el Consejo.
- Recibir y tramitar las solicitudes de alta y baja de los/as miembros del Consejo, así como gestionar el registro correspondiente.
- Recibir y, en su caso, comunicar las propuestas de los miembros del Consejo.



- g) Kontseiluko kideei aholkuak ematea, hala eskatzen zaio-  
nean.
- h) Idazkari izateagatik dagokion beste edozein eginkizun  
betetzea.

### III. KAPITULUA

#### ANTOLAKETA ETA BOTO-ESKUBIDEA

##### 9. artikulua. Kontseiluaren egitura.

1. Tolosako Hezkuntza Kontseilua Osoko Bilkuran eta Ba-  
tzorde Iraunkorrean egituratuko da. Kontseilukide guztiak izango  
dira Osoko Bilkurako partaite, eta Batzorde Iraunkorra 14. arti-  
kuluan ezarritako gisan eratuko da.

2. Kontseiluaren barruan lantaldeak eratu ahal izango di-  
ra, 13. artikuluan ezarritako eran.

##### 10. artikulua. Osoko bilkura eratzea.

Tolosako Hezkuntza Kontseiluaren batzarra eratuztat joko da  
kontseilukideen erdiak eta bat gehiago bertaratu direnean. No-  
lanahi ere, eraketak balioa izan dezan, beharrezkoa izango da le-  
hendakaria eta idazkaria bertan egotea.

##### 11. artikulua. Osoko bilkuraren bilerak.

1. Tolosako Hezkuntza Kontseiluak gutxienez bi bilera egin-  
go ditu ikasturte bakoitzean. Bilkura bereziak ere egin ahal izan-  
go ditu, Kontseiluko lehendakariak beharrezkotzat jotzen badu  
edo kideen laurdenek eskatzen badute.

2. Ohiko bilkuretarako deiak gutxienez bost eguneko au-  
rrerapenarekin egingo dira, eta harekin batera bidaliko dira gai-  
zerrenda eta beharrezko dokumentazioa.

3. Bilkura berezietarako deiak gutxienez bi egun baliodu-  
neko aurrerapenarekin egingo dira, eta inoiz ez 48 ordu baino  
gutxiagoko tartearekin.

##### 12. artikulua. Boto-eskubidea.

Tolosako Hezkuntza Kontseiluak izaera parte-hartzailea due-  
nez, sustatuko da erabakiak adostasunez hartzea, horretarako  
behar diren elkarrizketak eta eztabaidak bideratuta.

Adostasunik ez badago, eskubidea duen bakoitzak bere bo-  
toa emango du, eta hala jasota geratuko da aktan. Erabakiak  
gehiengo soilaz hartuko dira. Bozketan berdinketarik izanez gero,  
berriro bozkatuko da, eta, hala ere berdinketarik egongo balitz,  
lehendakariaren bozak bi halako balioko du.

##### 13. artikulua. Lantaldeak.

1. Kontseiluak dauzkan eskumenen edo eginkizunen es-  
parruko gaiak aztertzeo, lantaldeak eratu ahal izango dira. Kon-  
tseiluko lehendakariak edo Kontseiluko kideen laurdenek eska-  
tuta eratu dira batzorde horiek.

2. Honako hauek osatuko dituzte lantaldeak: kontsei-  
luburuak, idazkariak eta kontseilukide-kopuru jakin batek –kopuru  
hori gutxienez hirukoa izango da, eta gehienez hamarrekoa–.  
Kontseiluburua eta idazkaria ez badira lantaldeko kide, pertsona  
bat izenda dezakete beren eginkizunak betetzeko.

Kontuan hartuta zer dioen 1/2023 Legegintzako Dekretuak,  
martxoaren 16koak, emakumeen eta gizonen berdintasunerako  
eta emakumeen aurkako indarkeria matxistarik gabe bizitzeko  
Legearen testu bategina onartzen duenak, neurri egokiak hartuko  
dira lantaldeetan emakumeek eta gizonen presentzia orekatua  
izan dezaten (sexu biek gutxienez % 40ko ordezkartza). Presen-  
tzia orekatu hori bete dadin, Udalak sustatuko du elkarteetako  
edota erakundeetako zuzendaritza-organoetan presentzia oreka-  
tua izatea, besteak beste, dirulaguntzen oinarrietan neurriak sar-  
tuz, emakumeek presentzia txikia duten zuzendaritza-organoetan  
presentzia hori handitzea ahalbidetzeko.

g) Asesorar a los/as miembros del Consejo cuando sea re-  
querido/a para ello.

h) Cuantas otras funciones sean inherentes a su condi-  
ción de secretario/a.

### CAPÍTULO III

#### ORGANIZACIÓN Y DERECHO A VOTO

##### Artículo 9. Estructura del Consejo.

1. El Consejo Educativo de Tolosa se estructurará en el  
Pleno y en la Comisión Permanente. Todos/as los/as miembros  
del Consejo formarán parte del Pleno, y la Comisión Permanente  
se constituirá en la forma prevista en el artículo 14.

2. En el seno del Consejo podrán constituirse grupos de  
trabajo en los términos establecidos en el artículo 13.

##### Artículo 10. Constitución del Pleno.

Se entenderá constituido el Pleno del Consejo Educativo de  
Tolosa cuando concurren a la misma la mitad más uno/a de sus  
miembros. En todo caso, la válida constitución requerirá la pre-  
sencia del/la presidente/a y del/la secretario/a.

##### Artículo 11. Reuniones del Pleno.

1. El Consejo Educativo de Tolosa celebrará al menos dos  
reuniones cada curso. También podrá celebrar sesiones extraor-  
dinarias si el/la presidente/a del Consejo lo considera necesari-  
o, o lo solicita la cuarta parte de sus miembros.

2. Las sesiones ordinarias se convocarán con una antela-  
ción mínima de cinco días, y se acompañarán del orden del día  
y la documentación necesaria.

3. Las sesiones extraordinarias se convocarán con una an-  
telación mínima de dos días hábiles, y nunca con una antela-  
ción inferior a 48 horas.

##### Artículo 12. Derecho a voto.

Dado el carácter participativo del Consejo Educativo de To-  
losa, se fomentará la toma de decisiones de forma consensua-  
da mediante el diálogo y el debate necesario.

En caso de desacuerdo, cada persona con derecho emitirá  
su voto, que quedará reflejado en el acta. Los acuerdos se adop-  
tarán por mayoría simple. En caso de empate en la votación, se  
volverá a votar y, en caso de empate, el voto del/la presidente/a  
valdrá el doble.

##### Artículo 13. Grupos de trabajo.

1. Podrán constituirse grupos de trabajo para tratar asuntos  
relacionados con las competencias o funciones del Consejo. Es-  
tas comisiones se constituirán a instancia del/la presidente/a  
del Consejo o de una cuarta parte de sus miembros.

2. Los grupos de trabajo estarán compuestos por el/la pre-  
sidente/a, el/la secretario/a y un número de vocales que no  
podrá ser inferior a tres ni superior a diez. En el caso de que el/la  
presidente/a y el/la secretario/a no sean miembros del grupo  
de trabajo, podrán designar una persona para el ejercicio de sus  
funciones.

Teniendo en cuenta lo dispuesto en el Decreto Legislativo  
1/2023, de 16 de marzo, por el que se aprueba el texto refundido  
de la Ley para la Igualdad de Mujeres y Hombres y para la Igualdad  
de Mujeres y Mujeres y Contra la Violencia Machista, se adoptarán  
las medidas oportunas para garantizar una presencia equilibrada  
de mujeres y hombres en los grupos de trabajo (representación  
de al menos el 40 % de ambos sexos). Para que esta presencia  
equilibrada se cumpla, el Ayuntamiento promoverá una presencia  
equilibrada en los órganos de dirección de las asociaciones y/o  
entidades, entre otras cosas, mediante la introducción de medidas  
en las bases de las subvenciones, que permitan incrementar esa  
presencia de las mujeres en los órganos directivos con escasa  
presencia.

3. Lantaldeei dagokie Tolosako Hezkuntza Kontseiluaren osoko bilkurarako proposamenak egitea.

4. Lantaldeetako bileren araubidea malgua izango da, eta beharrendaren arabera deituko dira.

14. artikulua. Batzorde Iraunkorra.

1. Tolosako Hezkuntza Kontseiluak Batzorde Iraunkorra eratuko du, zeinak honako kide hauek izango dituen:

- a) Kontseiluko lehendakaria.
- b) Udal-talde politiko bakoitzeko ordezkariak, eta haien ordezkioak.
- c) Oinarrizko hezkuntzako ikastetxeetako zuzendariak, eta haien ordezkioak.
- d) Kontseiluko idazkaria.

Kontuan hartuta zer dioen 1/2023 Legegintzako Dekretuak, martxoaren 16koak, emakumeen eta gizonen berdintasunerako eta emakumeen aurkako indarkeria matxistatik gabe bizitzeko Legearen testu bategina onartzen duenak, neurri egokiak hartuko dira Batzorde Iraunkorrean emakumeek eta gizonek presentzia orekatua izan dezaten (sexu biek gutxienez % 40ko ordezkartza). Presentzia orekatu hori bete dadin, Udalak sustatuko du elkarteetako edota erakundeetako zuzendaritza-organoetan presentzia orekatua izatea, besteak beste, dirulaguntzen oinarrietan neurriak sartuz, emakumeek presentzia txikia duten zuzendaritza-organoetan presentzia hori handitzea ahalbidetzeko.

2. Batzorde Iraunkorrek premiaren arabera egingo ditu bilerrak.

3. Batzorde Iraunkorrean landu behar bada lantalde batek egindako proposamenen bat, bertan izan beharko dute lantalde horrek hautatutako ordezkariak.

3. Corresponde a los grupos de trabajo elaborar propuestas para el pleno del Consejo Educativo de Tolosa.

4. El régimen de las reuniones de los grupos de trabajo será flexible, y se convocarán según las necesidades.

Artículo 14. Comisión Permanente.

1. El Consejo Educativo de Tolosa constituirá una Comisión Permanente compuesta por los/as siguientes miembros:

- a) El/la presidente/a del Consejo.
- b) Representantes de cada grupo político municipal, y sus suplentes.
- c) Directores/as de los centros de educación básica y sus suplentes.
- d) El/la secretario/a del Consejo.

Teniendo en cuenta lo dispuesto en el Decreto Legislativo 1/2023, de 16 de marzo, por el que se aprueba el texto refundido de la Ley para la Igualdad de Mujeres y Hombres y para la Igualdad de Mujeres y Mujeres y Contra la Violencia Machista, se adoptarán las medidas oportunas para garantizar una presencia equilibrada de mujeres y hombres en la Comisión Permanente, con una representación mínima del 40 % de ambos sexos. Para que esta presencia equilibrada se cumpla, el Ayuntamiento promoverá una presencia equilibrada en los órganos de dirección de las asociaciones y/o entidades, entre otras cosas, mediante la introducción de medidas en las bases de las subvenciones, que permitan incrementar esa presencia de las mujeres en los órganos directivos con escasa presencia.

2. La Comisión Permanente se reunirá según las necesidades.

3. En el caso de que en la Comisión Permanente se trabaje alguna propuesta realizada por un grupo de trabajo, deberán estar presentes los/las representantes elegidos por dicho grupo de trabajo.